

**TERESA LISIEUXKOAREN OMENEZ
(LARREA - ZORNOTZA)**

Frantziar gazte honek santutasun mailako marka guztiak ondu dituala dirudi. Bere liburu famatuena "Arima baten historia" best-seller dogu. Biblia kendu ezkeru, ez dago beste erlijio-liburu bat, hogeigarren mendean, gehiago saldu danik. Hirurogeitik gora dira liburu sonatu hori itzultitako hizkuntzak. Teresaren *Idazlan guztiak*, zorionez, euskeraz be argitaratuta daukaguz, 1996. urtean, hain zuzen be.

Hau gitxi balitz, horra hor Teresaren beste marka batzuk be. Bera hil eta 28 urte bete baino lehenago, Pio XI.ak altaretara jasoko dau Erromako San Pedro Basilikan, bostehun mila pertsonen aurrean. Handik bi urtera, Aita Santu berberak izentatuko dau karmeldar gaztea misiolari guztien eta mundu osoan dagozan misio guztien zaindari, gure Xabierko Frantzizko santuarekin batera. Pio XII.ak Frantziako eta Australiako zaindari jarriko dau. JOCen zaindari be bera dogu. Eta 1980. urtean Joan Paulo II.a erromes doa Lisieuxera ta Teresaren hilobiaren aurrean otoitzean ikusiko dau mundu guztiak Aita Santu poloniarra.

Ehun eta hamar urte lehenago, Leon XIII.ren oinetan belaunikatuko da Teresa. Hamalau urte besterik ez ditu. Eta Aita Santuari eskatuko deutso hamabost urtekin komentuan sartzeko baimena. Teresa Erromara doa Aita Santuaren aurrean auspezte-



Antzerkiko eszena bat.

ra. Ta orain Aita Santua berbera Lisieuxera doa, Teresaren aurrean otoizka. Gauzak zelan aldatzen diran!

Teresa Eliz Irakasle

Beste marka bat be haustu dau Teresa Lisieuxkoak. Hogeita hamahiru Eliz Irakasleen artan berau dogu gazteena. Eta marka barri hori urriaren 19an lortu dau. Eliz Irakasleen zerrendan hiru emakume ditugu. Bata Teresa Avilakoa, bestea Santa katalina Siernakoa ta hirugarrena Lisieuxko lekaipe gazte argia. Eta danon artean, iñor izatekotan, berau dogu *Maitasunaren Doktorea*.

Teresaren doktrinea originaltasunez beterik daukagu. Itzal haundiko autore espiritualak danik ezin daikegu ukatu. Duda barrik, mende honetako kristau mezurik bikainena eta eragingarriena berea dogu. Teresaren doktrineak eragin unibertsala izan dau pertsonengan eta eliz erakundeetan. Horixe nahi izan dau Aita Santuak azpimarratu *Eliz Irakasle* izendatuz. Baita beste hiru gauza be kontuan izan ditu Aita Santuak. Doktrina horren ema-

kume ikutua batetik eta kontenplazio aire garbia bestetik. Tere-saren doktrina beti be gazte-freskotasuna ta poza dariola ager-tzen jaku.

Aurreko *Karmel* aldizkarian, 219.zenbakian, bi artikuluk eder, bata bestea baino hobegoak agertu izan dira, Teresa Lisieux-koa *Eliz Irakasle* bezela azalduz (ik. *Karmel* 1997-3, 60-124. orr.). Artikulu horreetan ikusten denez, Teresa gazteak ondo merezita dauko *Eliz Irakasle* titulua. Eta ni neu ez noa horretaz ezer gehiago esatera. Hurrengo lerroak Eliz irakasle barria Larre-ako historiaz lotuta ikusten saiatuko naz.

Teresa Lisieuxkoa, Larre-ako Katekesiaren zaindari.

Ezin daikegu ahaztu Larrean bizi garanok, gure Katekesiaren zaindari be badogula Teresa. Gerra Zibil zitalaren ondoren sortu zan Larre-ako katekesia. Helburu nagusiena, kristau bizitzan, in-guruko ume ta gazteak hezitzea izango da fundatzaileen asmoa. Baita arbuaiaturik egoan euskerea zaintzea be. Helburu bi honeek ondo bete izan ditu Larre-ako katekesiak. Eta betetzen dihardu.



Antzerkiko eszena bat.




Antzerkiko eszena bat.

Aurtengo kurtsoan, Teresaren bizitza eta mezua ezagutzeko lan galanta egin izan dogu Larrean. Ez da egongo Larreako katekista bat bera be Teresaren "Arima baten Historia" irakurri ez dauanik. Baita berari buruzko beste liburu-
ren bat be. "Creer amando" deritxona, esaterako.

Ume eta gaztetxoentzat, Aita Julenen laguntzaz, argitaratu ditugu Teresaren posterak, estanpak eta, batez be, Teresaren bizitza eta mezua irudietan. Oso polita eta atsegina. Harrera ona izan dau liburu honek.

Dana euskeraz, azkenengo orriak izan ezik. Oneek erderaz dagoz, Karmengo Ordenaren historia laburtuta jarritz. Oso gustora jarraitu izan dabe, liburu horren bidez, Teresaren historia eta mezua gure ume eta gaztetxoak.

Hortik kanpora, gure otoitzaldietan, konbibentzietan, bederatziumenetan, sermoietan, Teresaren presentzia nabarmena izan da. Adibidez, Karmengo Amaren aurtengo bederatziumena be Teresaren mezuan oinarritutako predikua izan genduan. Kurtso barri honetan, Teresa Lisieuxkoari buruzko konkurtso haundi bar be antolatu dogu. Eta irabazleek sari ederrak jasoko dabez.



Larreako gazteak Lisieuxko Teresaren etxe aurrean.

Aipatzekoa da, Larreatik Lisieuxera egin doguzan peregrinazioak. Bata gazteekin eta bestea adinekoekin. Talde biak Teresaren bizitzaz eta mezuaz maiteminduta etxeratu jakuz. Eta or parte hartu daben gazteak, hamabostetik bein alkartzen dira otoitzean. Ez da ondorio makala.

Aipatzekoa da aurtengo katekesi-kurtoaren hasieraz azaroaren 8an: Mezako eskarietan mediku karrera egiten dauan Eneko Ibarrurik agertu eban guraria: "Azkenik, zuri, Teresa, zera eskatu nahi dizugu: umetxo hauei zure Jesusenganako maitasuna kutsatzea eta guri katekistoi zuri esker sortutako adiskidetasuna aurrera eramaten laguntzea". Eta gero eskerrak emotean Nerea Gurtubayk, aurten Deustun Zuzenbideko karrera amaitu dabena, bihotzetik esan eban:

"Eskerrik asko pasa den kurtoan eta uda honetan Teresa Lisieuxkoa ezagutzeko aukera izan dugulako; ea bere mezuak gure bihotzean erantzun sendo bat izaten duen. Eskerrak zuri Teresa katekisten artean sortu duzun giroarengatik. Eskerrak

ere Teresa Lisieuxkoa eta Kalkutako Teresa bezelako emakumeak mundura bidaltzeagatik. Eskerrak Jauna bi emakumeek mundu honetan bakoitzak bere erara zure izenean egin duten lanagatik”.



Antzerkiko musikariak.

Larreako Katekesiaren urrezko ezteguak

Aurtengo azaroaren 2an, bete izan dira Larreako katekesiaren urrezko ezteguak. Polito ospatu izan ditugu berrogeita hamar urte horreek. Gurekin izan genduzan Aita Libino eta Aita Jose Luis. Biok Larreako katekesiaren sortzaileak. Eurokin batera, lehenengo katekista taldea be omendua izan da. Hona hemen Larreako lehenengo katekisten izenak: Mari Carmen Intxausti Alzaa, Mari Carmen Alberdi, Nati Lauzirika, Gloria Zugazabeitia, Carmen Iturriondobeitia, Mari Carmen Intxausti Gallarzagoitia, Begoña Zenarruzabeitia, Mari Kruz Mardaraz, Mari Isabel Arana, Elena Mezo, Teresa Gurutziaga, Tere Uria, Teresa Lekanda. Guztiz hamahiru neska gaztek osatu eben lehenengo katekista taldea. *Karmen* eta *Teresa* izenak gaur baino ugariago izaten ebezan aldi haretako gure neskak.

Zerrenda honetatik, lauk ezin izan eben omenaldira etorri. Mari Kruz Mardaraz eta Teres Uria gaixorik dagozalako. Eta beste biak, bata Teresa Gurutziaga Afrikako lurraldetan mixiolari tinko dihardualako eta Teresa Lekanda klausurako monjetan otoiz ixilean bizi dalako. Omenaldi sentikorra eta polita, benetan.

Katekesiaren urrezko ezteguak eta omenaldia ospatzeko, aurreko hiru egunetan hitzaldi bi eta *Teresaren Antzerki-Musikala* antolatu ziran. Urriaren 29an eta 30ean, Larreako katekesiaren fundatzaileak egin euskuen berba S. Teresari buruz. 29an, Aita Jose Luisek zuzendu euskun hitzaldia. Hunkigarria eta makina baten begietan malkoak ikusi ziran. Eta 30ean, Aita Libino gaixorik aurkitzen zanez, bere anaiak, Aita Pedro Marik hitzaldi sakona eta ederra eskeini euskun. Egun biotan parroko saloia gainezka egoan.

Eta azaroaren 2an, urrezko ezteguak gomutatuz, omenaldi bero bat eskeini geuntsen Katekesiaren sortzaileei. Eleizea gai-



Teresarena egin eben hiru antzeslariak, eta antzerkiaren eragilea.

nezka. Organuo sutan eta kantu eta kitarren doinuz hormak be saltoka. Aita Libinoren eta Aita Jose Luisen berbakin inor ez zan lokartu mezan. Egun berean, amaiera emon geuntson Larrean Teresaren heriotzaren mendeurrenari be. Omenduentzat ez ziran falta izan opariak eta aureskua be.

Ondoren, "Propi Jatetxean", 73 katekista ohiak eta oraingoak alkartu ginan. Bertan zan erriko alkatea be, Alberto Gurtubay jauna. Eta herriaren izenean, opari bana emon eutsen Libinori eta Jose Luisi. Eskertzekoak alkate jaunaren hitzak. Baita Aita Jose Luisenak be. Lehengo denporak eta oraingoak konparatuz hitz baikorrak zuzendu euskuzan. Izandako katekista zaharren izenean Karmen txu Intxaustiren berbak entzunez pil-pilean jarri jakun bihotza. Eta gaurko katekisten izenean, Egoitz Zalabaren berbak irria eta barrea sortu ebezan mahi inguruan. Mutil honek baditu ekarria eta umore fina. Lehengo eta gaurko kantakin alaituz bazkalondo ederra izan genduan. Eta amaitzeko, zutunik "Agur Jaunak" ozenki abestuz, amaitu genduan egun zoragarria.

Antzerki Musikala

Urriaren 31an, *Teresaren Antzerki Musikala* antzeztu euskuen Larreako katekista gazteak. Larreako eleizea bete beterik. Jendea pozarren geratu zan hain lan atsegina dastatuz.

Berrogeita hamarretik gora izan ziran antzezleriak. Euren artean, hiruk antzeztu eben Teresarena. Umetako Teresa, Itxaso Ocerinek; Teresa gaztea, Igone Gomezek; ta Teresa Karmeldarra, Esti Diazek. Hirurok lan oso ederra egin eben. Beste danak be goiko maila erakutsi euskuen. Batek ez daki zein aktore gehien goraldtu. Batzuk profesional ezin hobekak zirudien... Historirako hor geratzen dira Argazkarik eta Julen Urkizak atarateko argazkiak. Baita Argazkarik eta Medinak egindako bideo ederrak be.

Antzerki hau, Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Markinan be antzeztu izan dabe Larreako gazteak. Makina bat txalo jaso dabez han eta hemen. Niretzako, Larrean antzeztu izan dabe on-



Antzeslari batzuk.

duen. Badabe antzezlariak bihotz barnean zauritxo bat. Erromatik deitu euskuen han be Teresaren antzerki-emonaldia egiteko. Eta azkenean, Erromako bidaiaria pikutara joan jakun hango prai-le nagi eta monja buru arin baten erruz edo, dirudienez.

Beste hainbat lekutatik be deitu deuskue baina ezin izan dogu. Batzuk lanean eta gehienak Unibertsitatean dabizelako. Eskerrak antzerkiari, katekista taldea inoiz baino alkartuago daukagu. Horra hor, Teresaren beste larrosa eder bat, Larreako baratze emonkorrean!

Argazkien erakusketa

Teresaren heriotzaren mendeurrena eta Katekesiaren urrezko ezteguak dirala-ta, argazkien bi erakusketa be izan ditugu. Bata Teresaren argazkiekin eta bere mezuaz lotuta. Eta bestea Larreako Katekesiko ume, gazte eta katekistena. Teresarena maiatzetan izan genduan eta katekesikoa azaroan. Biak Larreako klaus-tro ederrean.

Teresaren erakusketa "Monte Carmelo" Argitaletxeak antolatuta eta bestea Larreako artxiboan gordeten diran argazkiekin.

Erakusketa bi honek ikustera jende asko etorri da. Eskerrak erakusketa bi honej, batek baino gehiagok ezagutu izan ditu Teresa Lisieuxkoaren bizitza ta bere mezuaren printz disdiratsuak. Teresaren bideo batzuk ikusteko aukera be emon deusagu jendeari. Bata "Thérèse de Lisieux et du Monde", Larreako katekistak itzulita. Bikoizketa hau oso ederto geratu jaku. Artista bat baino gehiago ditugu Larreako katekista gazteen artean.

Katekesiko argazkietan, hainbat zornotzar ageri dira. Eta umetan edo gaztetan zein politikak eta dotoreak ziran, begibistan dago. Beste aldetik, berrogeita hamar urteen eragina erraz ikusten da. Argazkietako umetxo laztanak, gaur aguretuta edo atso-tuta tirriki-tarreka, lupa haundiekin, umetako argazkiak ikusi nahirik. Baina katekesiko erakusketa ikusten, jendea ez da aspertzen. "O tempora, o mores!"

Eleizea konpontzen

Larreako eleizea eta aurreko zelaia guztiz barrizatuta geratu dira. Baegoan premina. Inondiko (Erakundeetako) laguntza bari-rik gainera. Bost pertsonak lagundu deuskue bakarrik. Gure praile baten loba batek miloi bat pezeta emon deusku. Beste gure praile baten koinatuak hogeita bost mila. Gazte batek bi mila. Emakume zahartzo batek mila ta zazpirehun eta beste emakume bik hamabost mila eta bost mila bakotxak. Horrexek dira kanpotik hartutako gure laguntzak. Beste dana komentuak jarri dau bere lur salmentatik. Zornotzako herria ez da, batere, ondo portatu Larreako eleizagaz. Gauzak ez dira apaintzen haize freskuaz, ezta berba politekin be!

Eleizaren errestaurazioaren zuzendariak Errapel Mentxaka abadea eta Luis Arostegi karmeldarra izan dira. Barrikuntza goitik beherakoa izan da. Teilatutik hasi ta eleizako bankuetaraino. Horma-harriak garbitu, eleizako gangak pintatu, erretaulak zaharbarritatu, argi barria ipini, megafonia aldatu, lau autorleku zaarrak kendu ta bi barri dotore ipini korurako harrizko eskeilera sarrere-



Teresaren izeneko kanpai barria bedeinkatzen.

tan, presbiterioko anboia eta ohola aldatu, belaunikatzeko gabeko banku barriak jarri. Eta beste mila gauza txiki be bai.

Erretaulak barrizatzen bi talde ibili dira batera. "Equipo 7"koak eta "Ercoa"koak. Talde bi honeek oso famatuak ditugu Bizkaiari. Besteak beste, esaterako, "Equipo 7"koak Guggenheim Museuan be hartu dabe parte. Hiru erretaula konpondu dabez bakotxak. "Equipo7"koak erretaula nagusia, Arimena eta Jaunaren Gizakundearena. Eta beste hirurak, San Josena, Santa Teresarena eta San Joan Kurutzekoarena "Ercoa"koak.

Errestaurazio honetan hiru gauza nahi ditut azpimarratu. Bi Teresak in lotuta dagoz eta bestea gure eleizagaz parroki bezala. Nahizta Teresa oso maitatua izan Laorean, ez egoan bere irudirik agirian erretaula batean be. Bere heriotzaren mendeurrenaren hasieran, eleizako hormetan ipini izan genduan bere argazki eder

bat. Beste gabe, jendea hasi zan galdetzen nor zan argazkian agertzen zan gazte hori. Holan hasi genduan Teresaren mendeurrena.

Eta orain, mendeurrenaren amaieran, Teresa Avilakoaren eta Joan Kurutzekoaren ondoan agertzen da karmeldar gazte honen irudia be. Artistikoki ez dauko balio haundirik. Bai oster sentimetalki. Irudi hau, gure Larreako katekesiaz hasieratik lotuta egon dalako. Hemendik aurrera hurrengo errestaurazinorano, behintzat, hiru karmeldar bikaiñok alkarren ondoan gurtuko ditugu Larreako eleizan. Hirurok *Eliz Iraksle* ditugu. Eta gainera, hirurok karmeldarrak. Ez da marka makala!

“Teresa Lisieuxkoa”ren izena daroa Larreako kanpai barriak be. Bere doinu alaitsuak pozten ditu inguruko bazterrak! Baita aipatzekoa da, bataiarri barri bat be ipini dogula. Hor genbizan atzera ta aurrera, latorrizko ontzi bategaz bateoak ospatzen. Orain marmolezko ontzi eder bat dogu Eleizaren lehenengo sakramentua hartzeko.

Teresaren heriotzaren mendeurrenean eta katekesiaren urrezko ozteguetan, Larreako fraileak eta jendea ez gara lotan egon!

Andoni Olea